

EUSKAL JAIA:

LOGOTIPO LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Logotipo bat sortu nahi da Euskal Jaia irudikatzeko mota guztietako zabalkunde, informazio eta publizitate-euskarrietan.
2. Logotipoaren diseinuak hauek izan beharko ditu kontuan:
“Anoetako Euskal Jaia” testua azaldu beharko da.
Balore hauek irudikatu beharko ditu: euskal izaera, nekazal munduaren aldarrikapena eta elkarlana.
3. Lehiaketa honetan pertsona fisikoek har dezakete parte (ez enpresek).
4. Logotipoak karratua izan behar du, eta gehienez neurri hauetakoa: 10 x 10 zm.
Teknika: Librea (pintura, marrazkia, ilustrazioa, collage etab.). Formatu digitalean ere aurkez daitezke. Azken kasu honetan gutxienez 300 ppi-ko erresoluzioa izan beharko dute, eta JPG formatuan aurkeztuko dira.
5. Lanak koloretan aurkeztuko dira, originalak, eta beste inon ez aurkeztutakoak.
6. Pertsona bakoitzak hiru lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez.
7. Lanarekin batera, eta kartazal itxi baten barnean egilearen datuak (izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta adina) eta logotipoaren azalpena (gehienez orrialde batekoa) sartuko dira. Kartazalaren kanpoan eta kartelaren atzeko aldean, berriz, egilearen goitizena.
8. Lanak aurkezteko epea 2017ko martxoaren 31n –ostirala- amaituko da. Lanak udaletxean edo liburutegian aurkeztu behar dira.
9. Epaimahaia Anoetako Euskal Jai batzordeak osatuko du, eta bere erabakia aldaezina izango da. Ebazpena apirilaren 28an emango da beranduenez.
10. Epaimahaiak eman gabe utzi ahal izango du saria, aurkeztu diren lanek saria lortzeko kalitate nahikoa ez dutela uste badute.
11. 120 €ko saria jasoko du irabazten duen logotipoaren egileak.
12. Euskal Jai batzordearen esku geldituko da irabazten duen logotipoa.
13. Aurkeztutako lan guztiekin erakusketa bat antolatuko ahal izango du Euskal Jai batzordeak, eta hau amaitu ondoren 15 eguneko epean saririk eskuratu ez duten lanak jaso ahal izango dituzte beren jabeek. Epe hori igarotakoan lanak jaso ez badira, egileek uko egin dietela ulertuko da, eta artistek ez dute erreklamaziorik egin edo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.
14. Anoetako Euskal Jai batzordeak berarentzat gordeko ditu lanak editatzeko eta erabiltzeko eskubideak.
15. Lehiaketan parte hartzeak berez adierazten du oinarri guzti hauekiko adostasuna.